

PRIBATUTASUN- POLITIKA

GURE PRIBATUTASUN-POLITIKA, BEGIRATU BATEAN

1. **NOR GARA?**, BERSHKA BSK ESPAÑA, S.A. gara, eta zure datu pertsonalak tratatzen ditugu tratamenduko Responsable. Nola ardura hartzen dugun erabiltzea honek esan nahi da eta zure datuak babestea. [Ikusi gehiago.](#)
2. **ZERTARAKO ERABILTZEN DITUGU ZURE DATUAK?** Zure datuak erabiliko ditugu (online edo aurrez aurre lortutakoak), besteak beste, erabiltzaile gisa **zure erregistroa kudeatzeko**, produktuen eta zerbitzuen **erosketa kudeatzeko**, **zure kontsultei erantzuteko** eta, hala nahi baduzu, gure **jakinarazpen pertsonalizatuak** zuri bidaltzeko. [Ikusi gehiago.](#)
3. **ZERGATIK ERABILTZEN DITUGU?** Legitimazioa dugu zure datuak tratatzeko, hainbat arrazoiengatik. Arrazoi nagusia da datuak tratatu egin behar ditugula erregistratzen zarenean eta erosketa bat egiten duzunean edo gure zerbitzuren edo funtzionaltasunen batez gozatzen duzunean onartzen duzun **kontratua betearazteko**. Hala ere, badaude horretarako legitimazioa ematen diguten beste arrazoi batzuk ere, hala nola zure kontsultei erantzuteko interesa edo gure Newsletter-ak bidaltzeko ematen diguzun **baimena**. [Ikusi gehiago.](#)
4. **NOREKIN PARTEKATZEN DITUGU ZURE DATUAK?** Laguntzen diguten edo sostengua ematen diguten zerbitzu-emaileekin partekatuko ditugu zure datuak, hala Inditex taldeko enprekin nola hitzarmen bat adostuta dugun kanpoko laguntzaileekin, Europar Batasun barrukoak izan edo ez. [Ikusi gehiago.](#)
5. **ZURE ESKUBIDEAK.** Eskubidea duzu zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko. Kasu batzuetan, badituzu beste eskubide batzuk ere; besteak beste, guk zure datuak erabiltzearen edo izatearen aurka egitea. Beherago azalduko dizugu hau xeheago. [Ikusi gehiago.](#)

Irakur ezazu jarraian gure **Pribatutasun- politika**, zehatzago uler dezazun nola erabiliko ditugun zure datu pertsonalak eta zein eskubide dituzun horiei lotuta.

HASI BAINO LEHEN...

- **Pribatutasun- politika** dokumentu honetan izango duzu gure **bezeroen eta erabiltzaileen datu pertsonalei** dagokienez egiten dugun **erabilerari** buruzko **informazio garrantzitsu guztia**, gurekin harremanetan egoteko erabiltzen duzun **Espainiako v** ko kanala edo bitartekoa (**online edo aurrez aurre**) edozein dela ere.
- **Modu gardenean** azaltzen dugu zer egiten dugun zure datu pertsonalekin, jakin dezazun zer eragin duen datu horiek erabiltzeko dugun moduak eta zein eskubide dituzun datu horiekin lotuta:
 - Zure eskura jartzen dugu **etengabe informazio guztia** Pribatutasun- politika honetan, nahi duzun guztietan kontsultatu ahal izan dezazun, eta, gainera,
 - zure datu pertsonalen tratamendu bakoitzari buruzko **informazioa** jasotzen joango zara, **gurekin harremanetan zauden heinean**.
- Hona hemen Pribatutasun- politika honetan erabiliko ditugun izenetako batzuk:
 - Gure **plataformaz** hitz egiten dugunean, gurekin harremanetan egoteko erabili duzun edozein kanali edo bitartekori (online edo aurrez aurre) egingo diogu erreferentzia; hona hemen nagusiak:
 - Gure **webgunea**: www.bershka.com.
 - Gure **Bershkaren aplikazioa**, hau da, zure gailu mugikorrean instalatu duzun aplikazioa zein gure dendetan erabil ditzakegunak.
 - Aurrez aurre, **Espainiako Bershkako** gure **denda fisikoren** batean.

1. ZEIN DA ZURE DATUEN TRATAMENDUAREN ERANTZULEA?

Honako hauek gara zure datuen tratamenduaren erantzuleak:

- **BERSHKA BSK ESPAÑA, S.A.**, Espainian BERSHKA markako produktuak saltzen dituen sozietatea (aurrerantzean, "BERSHKA ESPAÑA"):
 - Helbidea: Avda. de la Diputación, Edificio Inditex, 15143, Arteixo (A Coruña), España.
 - Datuak Babesteko Ordezkararen helbide elektronikoa: dataprotection@bershka.com

Bestela esanda, hala BERSHKA ESPAÑA gara tratamenduaren erantzunkideak. Horrek esan nahi du arautu dugula eta arduratzen garela zure datuak erabiltzeaz eta babesteaz.

2. ZEIN HELBURUREKIN TRATATZEN DITUGU ZURE DATU PERTSONALAK?

Unean-unean zein produktu, zerbitzu edo funtzionaltasun erabili nahi dituzun, horren arabera datu batzuk edo beste batzuk tratatu beharko ditugu. Honako hauek izango dira, oro har:

- zure **identifikazio-datuak** (adibidez, zure izen-abizenak, zein hizkuntzatan eta zein herrialdeetatik jartzen zaren gurekin harremanetan, harremanetarako datuak, etab.).
- informazio **ekonomikoa eta transakzionala** (adibidez, zure ordainketaren edo txartelaren datuak, zure erosketei, eskaerei, itzultzei eta halakoei buruzko datuak, etab.).
- **konexio-, geolokalizazio- eta nabigazio-**datuak (adibidez, mugikorretik jartzen bazara gurekin harremanetan);
- **merkataritza**-informazioa (esate baterako, gure Newsletter-aren harpidedun bazara),
- zure **gustuei eta hobespenei** buruzko datuak.

Gogoan izan plataformaren funtzionaltasun edo zerbitzuren bat jasotzeko datu pertsonalen bat betetzeko eskatzen dizugunean, eremu batzuk *derrigor betetzekoak* izango direla, datu horiek ezinbestekoak baitira guretzat zerbitzu edo funtzionaltasun hori emateko. Mesedez, kontuan izan, datu horiek ematen ez badizkiguzu agian ezingo duzula erabiltzaile gisa zure erregistroa osatu edo ezingo duzula zerbitzu edo funtzionaltasun horiez gozatu.

Nola jartzen zaren gure plataformarekin harremanetan, horren arabera, helburu hauetarako tratatuko ditugu zure datu pertsonalak:

XEDEA	Informazio gehiago
<p>1. Zure plataformaren erabiltzaile-erregistroa kudeatzea.</p>	<p>Gure plataforman erabiltzaile gisa erregistratzea erabakitzen baduzu, zure datuak tratatu behar ditugu plataformaren erabiltzaile gisa identifikatu zaitzen eta erabiltzaile erregistratu gisa eskura dituzun funtzionaltasun, produktu eta zerbitzuak eskuratu ahal izan ditzazun. Erabiltzaile erregistratu gisa duzun kontua ezeztatu dezakezu, gurekin harremanetan jarriz Bezeroarentzako Arretaren bitartez.</p> <p>Sare sozial baten bidez edo zerbitzu hori (login soziala) gaitzen duen beste kolaboratzaile baten bidez sartzeko edo saioa hasteko aukera duzu saio-hasierako pantailan erabilgarri dagoenean, bai saio-hasiera zure kontura lotzeko, bai beste bat erregistratzeko. Kasu horretan, saioa hasteko zure kredentzialak, zure izena eta helbide elektronikoa/telefono-zenbakia (baliteke baimendu behar izatea) sare sozialetik edo laguntzailetik inportatuko dira. Saioa hasteko aukera hau erabiltzean, hirugarren horiek zure profil publikoko informazio osagarria bidali ahalko digute, gizarte-sarearen/kolaboratzailearen erabilera-baldintzen arabera, esaterako: zure izena, sexua, gutxi gorabeherako adina edo profileko argazkia. Erabilera-baldintza horiek arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu. Zuk baimena eman ezean, ez ditugu datu gehigarri horiek gordeko. Halaber, funtzionaltasun hau erabiliz gero, gerta daiteke zure jarduerari buruzko informazio jakin bat sare sozialari/kolaboratzaileari ematea. Nolanahi ere, zure pribatutasunaren ezarpena eta kolaboratzaile edo sare sozialaren pribatutasun-politikak berrikustea gomendatzen dizugu, hirugarren horiek zure datuak nola tratatzen dituzten jakiteko.</p>

2. Gurekin plataforman kontratatu duzun **salerosketa- edo zerbitzu-kontratua egin, bete eta gauzatzea.**

Xede honen barruan, bereziki honetarako tratatuko dira zure datuak:

- **Zurekin harremanetan jartzeko, kontratatutako funtzionaltasun, produktu edo zerbitzuen** inguruko informazio-jakinazpenei edo eguneratzeei lotuta, bai eta **kalitate-inkestak** bidaltzeko ere, emandako zerbitzuei edo produktuei buruz.
- Erositako produktuen **ordainketa kudeatzeko**, erabilitako ordainketa-modua edozein izanda ere. Adibidez:
 - Aplikazioaren edo webgunearen bidez gure produkturen bat erostean hurrengo erosketetarako **txartelaren datuak gordetzeko** funtzionaltasuna aktibatzea erabakitzen baduzu, funtzionaltasun hori aktibatu eta garatzeko zure datuak tratatu behar ditugu. Funtzionaltasun hori aktibatzea onartzeak aukera ematen du ondorengo erosketetan zure ordainketa-datuak auto-beteta agertzeko, ez ditzazun prozesu bakoitzean berriro bete behar, eta ondorengo erosketetarako baliozkotzat eta indarrekotzat hartuko dira. Zure txartelak aldatu edo ezabatu ditzakezu nahi duzunean, ordainketaren informazioari dagokion atalean, bai webgunean izena emandako erabiltzaile-kontutik, bai BERSHKAren aplikazioko Wallet funtzionaltasunetik.
 - Aplikazioko Wallet funtzionaltasuna erabiltzen baduzu aurrez aurre egindako erosketak ordaintzeko, zure datuak tratatu behar ditugu hura aktibatzeko; hala, zure ordainketak hasi ahal izango dituzu Espainiako BERSHKAren denda fisikoetan (hemendik aurrera, “Denda Fisikoak”) eta horretarako gaituak daudenetan.
- Beharrezko mekanismoak aktibatzeko, **zure aurkako eta Gure aurkako iruzur potentzialei aurrea hartzeko**. Operazioa iruzurrezkoa izan daitekeela uste badugu, erabilpen horrek transakzioa blokeatzea ekar dezake.
- **Itzultze** posibleak kudeatzeko, behin erosketa eginda, eta unean-unean eskuragarri dauden aukeren arabera.
- Fakturaziorako, eta plataforman egin dituzun erosketen tiketak eta fakturak zuretzat eskuragarri jartzeko.
- **Eskuragarri dauden beste funtzionaltasun edo zerbitzu batzuen** erabilera ziurtatzeko, hala nola **Opari Txartela** edo **Opari Tiketa** erosi, kudeatu eta erabiltzea, baita Denda Fisikoetan gure bezeroek erabil dezaten jartzen dugun **Wifiko** sarbidea eta erabilera ematea.
- Inditex taldean InWallet aplikazioaren erabiltzaile bazara (“InWallet”), eta plataforman honetan duzun kontua zure InWalleteko kontura lotu nahi baduzu, baimena ematen diguzu zure eskaera eta itzulketei lotutako informazioa emateko. InWallet aplikazioak jasotzen duen informazioa bere baldintza eta politika propioen mende dago; beraz, haiek begiratzea

	gomendatzen dizugu.
3. Bezeroentzako Arreta kanalen bidez egiten dituzun eskari edo eskabideei erantzutea.	Zure eskari edo eskabidea kudeatzeko edo ebazteko behar-beharrezkoak diren datuak bakarrik tratatzen ditugu.
4. Marketing helburuak	<p>Xede honen barruan, bereziki honetarako tratatuko dira zure datuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gure Newsletterren izena ematen baduzu, zure datu pertsonalak zure harpidetza kudeatzeko tratatuko ditugu; horren barruan, gure produktu edo zerbitzuen inguruko informazio pertsonalizatua bidaliko dugu (posta elektronikoz eta SMS bidez, besteak beste). Era berean, informazio horren berri <i>push</i> jakinarazpenen bidez ere emango dizugu, zure mugikorrean aktibatu badituzu. <ul style="list-style-type: none"> ▪ Beraz, kontuan hartu datuak horrela tratatzeak zure erabiltzaile- edo bezero-profila aztertzea dakarrela, informazioa bidaltzean zure lehentasunak zein diren jakiteko eta, beraz, jakiteko zein izan daitezkeen zure estiloarekin gehien bat egiten duten produktu eta zerbitzuak. Adibidez, zure erosketa- eta nabigazio-historialaren arabera (hau da, <i>klik</i> egin duzun jantzien arabera), zuretzat interesgarriak izango direla uste dugun produkturen inguruko iradokizunak egingo dizkizugu, eta, erabiltzaile erregistratua bazara, "orgatxoa berreskuratzeko" funtzionaltasuna eskainiko dizugu. ▪ Gogoratu Newsletterreko harpidetza utz dezakezula edonoiz eta inolako gasturik gabe, plataformako "Newsletter" atalean ere, baita komunikazio bakoitzean emango dizkizugun argibideen bidez ez ezik. Ez baduzu <i>push</i> jakinarazpenik jaso nahi, aukera hori desaktibatu ahal izango duzu zure mugikorrean. ▪ Promozio-ekintzak egitea (adibidez, lehiaketak egiteko edo gordetako zure artikuluen zerrenda zuk adierazitako helbide elektronikora bidaltzeko) Promozio-ekintzaren batean parte hartzean, zuk emandako datuak tratatzeko baimena ematen diguzu, promozio-ekintza bakoitzaren arabera, eta sare sozialen edo plataformaren beraren bidez komunikatu ahal izango ditugu. Parte hartzen duzun promozio-ekintza bakoitzeko, lege-oinarriak izango dituzu eskuragarri; han emango dizugu zure datuen tratamenduaren inguruko informazio xeheagoa. ▪ Plataforman edo gure sare sozialetako kanalen bidez publikoki zabaltzen dituzun argazki edo irudiak zabaltzea, betiere zuk baimena eman ez gero.
5. Erabilgarritasun- eta kalitate-azterketa , gure zerbitzuak hobetzea.	Gure plataforman sartzen bazara, zure nabigazio-datuak helburu analitiko eta estatistikoetarako tratatuko ditugula jakinarazten dizugu, hau da, ulertzeko erabiltzaileek nola jarduten duzuen gure

	<p>plataformarekiko, eta, hala, han hobekuntzak sartu ahal izateko.</p> <p>Era berean, zenbaitetan kalitate-ekintzak eta –inkestak egiten ditugu, gure bezeroen eta erabiltzaileen gogobetetze maila neurtzeko, eta hobetu dezakegun arlo horiek antzemateko.</p>
--	---

3. ZEIN DA ZURE DATUAK TRATATZEKO LEGITIMAZIOA?

Zure datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen digun lege-oinarria tratamenduaren xedearen arabera da, hurrengo taulan azaltzen den moduan:

Xedea:	Legitimazioa.
<p>1. Plataformaren erabiltzaile moduan, zure erregistroa kudeatzea.</p>	<p>Plataformaren erabilera arautzen duten baldintzak gauzatzeko, beharrezkoa da zure datuak tratatzea. Bestela esanda: plataforman erabiltzaile moduan erregistratu ahal izan zaitez, zure datu pertsonalak tratatu beharra daukagu; izan ere, bestela ezingo genuke zure erregistroa kudeatu.</p> <p>Sare sozial batetik sartzea edo hastea erabakitzen baduzu, sare sozial bati zure datuak emateko baimena eman diozulako gaude legitimatuta datuak tratatzeko.</p>
<p>2. Salerosketa- edo zerbitzu-kontratua egitea, betetzea eta betearaztea</p>	<p>Zure datuak tratatzea beharrezkoa da zurekin lotzen gaituen salerosketa-kontratua betearazteko edo zerbitzuak emateko.</p> <p>Baliteke erosketa-prozesuari lotutako datu-tratamendu batzuk zuk eskatuta edo zuk baimenduta bakarrik aktibatzea; adibidez, ordainketa-datuak (txartela) biltegitratzea, hurrengo erosketetarako, edo datuak tratatzea Wallet aplikazioaren bidez erosketatik eskaneatzeko, edo gure produktuak eskuragarri dauden edo ez jakinarazteko. Halakoetan, zure datuak tratatzeko oinarria zure baimena bera da.</p> <p>Uste dugu interes legitimoa daukagula beharrezkoak diren egiaztapenak egiteko, erosketa bat egiten duzunean iruzur posibleak antzeman eta aurrea hartzeko. Uste dugu ordainketa egitean datu horiek tratatzea ona dela esku hartzen duten alde guztientzat, eta bereziki, zuretzat, hirugarrenek egindako iruzur-saiakeren aurka zu babesteko neurriak hartzeko aukera ematen baitigu.</p>
<p>3. Bezeroarentzako Arreta</p>	<p>Uste dugu interes legitimoa dugula dauden harreman-bitartekoen bidez zuk egindako eskaerei edo kontsultei erantzuteko. Gure arabera, datu</p>

	<p>horiek tratatzea onuragarria da zuretzat ere, zutaz egoki arduratzeko eta egindako kontsultak ebazteko aukera ematen baitigu.</p> <p>Gurekin harremanetan jartzean, bereziki zure eskaerarekin edo plataformaren bidez erositako produktu/zerbitzuekin lotutako gorabeherak kudeatzeko, tratamendua beharrezkoa da salerosketa-kontratua betearazteko.</p> <p>Zure kontsulta lotuta dagoenean beherago jakinaraziko dizkizugun zure eskubideak erabiltzearekin edo gure produktu edo zerbitzuekin lotutako erreklamazioekin, zure datuak tratatzeko zilegitasuna ematen diguna gure aldearen legezko betebeharrak betetzea da.</p>
<p>4. Marketinga:</p>	<p>Zure datuak marketing-helburuekin tratatzeko oinarri legitimoa zuk emandako baimena da; adibidez, hainbat bitartekotatik informazio pertsonalizatua jasotzea onartzen duzunean, zure mugikorrera <i>push</i> jakinarazpenak bidaltzea baimentzen duzunean, edo promozio-ekintza batean parte hartzeko edo zure argazkiak plataforman edo sare sozialetako gure kanaletan argitaratzeko legezko oinarriak onartzen dituzunean.</p> <p>Informazio pertsonalizatua erakusteko, uste dugu interes legitimoa daukagula zuri buruz daukagun informazioarekin (besteak beste, zure nabigazioa, lehentasunak, edo erosketa-historiala) eta zuk eman dizkizugun datu pertsonalekin (adin-tartea eta hizkuntza, adibidez) perfilatze bat egiteko, horrek aukera emango baitizu erabiltzaile moduan zure esperientzia hobetzeko eta zure lehentasunen arabera informazioa sarbidea izateko.</p>
<p>5. Erabilgarritasunaren eta kalitatearen azterketa</p>	<p>Uste dugu interes legitimo bat daukagula plataformaren erabilgarritasuna eta erabiltzailearen gogobetetzea aztertzeko; izan ere, uste dugu datu horiek tratatzea zuretzat ere onuragarria dela, xedea erabiltzailearen esperientzia hobetzea eta kalitate handiagoko zerbitzu bat eskaintzea delako.</p>

4. ZENBAT DENBORAZ GORDEKO DITUGU ZURE DATUAK?

Zure datuak **gordetzeko epea** tratamenduaren xedearen arabera izango da, jarraian azaldutakoaren arabera:

Xedea:	Gordetzeko epea
1. Plataformaren erabiltzaile moduan, zure erregistroa kudeatzea.	Zure datuak erregistratutako erabiltzailea zaren artean tratatuko ditugu (hau da, uztea erabakitzen duzun arte).
2. Salerosketa- edo zerbitzu-kontratua egitea, betetzea eta betearaztea	Zure datuak erosi dituzun produktu edo zerbitzuen erosketa kudeatzeko beharrezko denboran tratatuko ditugu, itzultze posibleak, edo produktua edo zerbitzua erosteari bereziki lotutako erreklamazioak edo keak kudeatzea barne. Zenbaitetan, zuk erabaki arte bakarrik tratatuko ditugu zure datuak; adibidez, ordainketa-datuen (txartela) kasuan, gordetzea eskatu badiguzu hurrengo erosketetarako.
3. Bezeroarentzako Arreta	Zure datuak zure eskaera edo eskabideei erantzuteko behar dugun denboran tratatuko ditugu.
4. Marketinga:	Zure datuak uzten duzun arte edo Newsletterren harpidetza ezeztatzen duzun arte tratatuko ditugu. Promozio-ekintzetan parte hartzen baduzu, zure datuak 6 hilez gordeko ditugu, ekintza bukatzen denetik.
5. Erabilgarritasunaren eta kalitatearen azterketa	Zure datuak puntualki tratatuko ditugu ekintza bat edo kalitate-inkesta jakin bat egitera goazenean, edo zure nabigazio-datuak anonimo bihurtzen ditugun arte.

Dagokion xedea betetzeko behar-beharrezkoa den denboran tratatuko ditugu datuak, baina, hala ere, ondoren ere gordeko ditugu, behar bezala gordeta eta babestuta, unean uneko indarreko araudia betetzeko tratamendutik eratorritako erantzukizunak sor litezkeen epean. Kasuan kasuko ekintza posibleak preskribatzen direnean, datu pertsonalak ezabatuko ditugu.

5. ZURE DATUAK HIRUGARRENEI EMANGO DIZKIEGU?

Pribatutasun- politika honetako xedeak betetzeko, beharrezkoa da zure datu pertsonaletarako sarbidea ematea **Inditex taldeko erakundeei** eta ematen dizkizugun zerbitzuetan laguntzen diguten **hirugarren aldeei**, hau da:

- **Finantza**-erakundeak,
- **iruzurra antzemateko eta hari aurrea hartzeko** erakundeak,
- **zerbitzu teknologikoen** hornitzaileak,
- **logistika-, garraio- eta entregatze-**zerbitzuen hornitzaileak eta laguntzaileak,

- **bezeroarentzako arretarekin** lotutako zerbitzu-hornitzaileak.
- **marketingarekin eta publizitatearekin** lotutako zerbitzuen hornitzaileak eta laguntzaileak.

Zerbitzua efizienteago egiteko, zerbitzuak ematen dituzten aipatutako horietako batzuk Europako Gune Ekonomikotik kanpo daude, eta ez dute Europar Batasunekoaren parekoa den datu-babesa ematen; hau da, Estatu Batuak. Jakinarazten dizugu kasu horietan **beharrezko bermeekin** eskualdatzen ditugula, **eta beti zure datuen segurtasuna zainduz**.

- Hornitzaile batzuek **PrivacyShield** ziurtagiria dute; lotura honetan kontsultatu dezakezu:

<https://www.privacyshield.gov/welcome>

- Beste hornitzaile batzuekin ereduzko kontratu-klausulak sinatu ditugu, Komisioak onartutakoak, eta haien edukia lotura honetan kontsultatu dezakezu:

https://ec.europa.eu/info/law/law-topic/data-protection/data-transfers-outside-eu/model-contracts-transfer-personal-data-third-countries_en

Bestalde, jakinarazten dizugu zure datuak gure enpresa nagusiari eman beharko dizkiogula, **Industria de Diseño Textil SAr**i (Inditex taldeko holding enpresa), enpresa nagusiari dagozkion betebeharrak betetzeko.

6. ZEINTZUK DIRA ZURE ESKUBIDEAK ZURE DATUAK EMATEN DIZKIGUZUNEAN?

Zure datuen konfidentzialtasuna errespetatzeko eta zure eskubideak bermatzeko konpromisoa hartzen dugu. Kosturik gabe erabili ahal dituzu norbait idaztean posta elektronikoko bat gure zuzendaritza dataprotection@bershka.com, erakustean zure eskaeraren arrazoia eta arrazoia eskubidearen arrazoia erabili nahi duzun besterik gabe. Zu identifikatzeko beharrezkotzat jotzen badugu, zure identitatea egiaztatzen duen dokumentu baten kopia eska diezagukezu.

Bereziki, zure datuak tratatzeko xedea eta legezko oinarria gorabehera, eskubidea duzu honetarako:

- Zure inguruan ditugun datuetarako **sarbidea** eskatzeko. Gogorarazten dizugu plataformaren erabiltzaile erregistratua izatekotan, zure datu pertsonalei dagokien atalean kontsultatu dezakezula informazio hori.
- Ditugun datuak **zuzentzeko** eskatzeko. Gogoratu plataformaren erabiltzaile erregistratua bazara zure kontuko zure datu pertsonalei dagokien atalean sar zaitezkeela zure datu pertsonalak aldatzeko edo eguneratzeko. Edonola ere, kontuan hartu zure datu pertsonalak edozein bidetatik aktiboki ematen dizkiguzunean, **egiazkoak eta zehatzak** direla bermatzen duzula, eta edozein aldaketa jakinarazteko konpromisoa hartzen duzula. Erregistro-formularioetan informazio okerra, zehaztugabea edo osatugabea emateagatik plataformari edo plataformaren arduradunari edo hirugarren bati eragindako edozein galera edo kalte erabiltzailearen erantzukizuna izango da bakar-bakarrik. Mesedez, gogoratu eskuarki zure datuak besterik ezin diguzula eman, ez hirugarrenenak, Pribatutasun- politika honetan baimendutakoa kenduta.
- Zure datuak **ezabatzeko** eskatzeko, gorago adierazi dizugunaren arabera ez bada jada beharrezkoa haiek tratatzea xede horretarako, edo jada ez badugu legitimaziorik haiek tratatzeko.

- Zure datuen **tratamendua mugatzeko** eskatzeko; horrek ekarriko du batzuetan zure datuen tratamendua aldi baterako edo behar dituzun baino denbora gehiagoan gorde ahal izatea ezeztatzeko eskatu ahal izatea.

Zure datuak edozein xedetarako tratatzeko **baimena** eman badiguzu, **edonoiz kentzeko eskubidea daukazu**. Zure baimena kentzeko modu batzuk 2. atalean daude azalduta, zure datuak zein xedetarako tratatzen ditugun azaltzen dugun atalean.

Zure datuak tratatzeko legitimazioa zure **baimena** edo **kontratua gauzatzea** bada, 3. atalean azaldutakoaren arabera, zure **datu** pertsonalen **eramangarritasuna** eskatzeko eskubidea duzu. Horrek esan nahi du eman dizkiguzun datuan formatu egituratu, erabilera komuneko eta makina batek irakur dezakeen batetan jasotzeko eskubidea izango duzula, beste erakunde bati zuzenean bidaltzeko, betiere teknikoki posible bada.

Bestalde, zure datuen tratamendua gure **interes legitimoan** oinarrituta dagoenean, zure datuak tratatzeari **uko egiteko** eskubidea izango duzu.

Azkenik, jakinarazten dizugu eskubidea duzula **erreklamazio bat aurkezteko** datu-babeseko dagokion **kontrol-agintaritzan**, bereziki honetan:

- la [Agencia Española de Protección de Datos \(https://www.agpd.es/portalwebAGPD/index-ides-idphp.php\)](https://www.agpd.es/portalwebAGPD/index-ides-idphp.php)

7. ZER GERTATZEN DA HIRUGARRENEN DATUAK EMATEN BADIZKIGUZU?

Zuk emango dizkiguzun hirugarren baten datu pertsonalak tratatzea eskatzen duten funtzionaltasun eta zerbitzuak ematen ditugu; adibidez, Opari Txartela aktibatzea eta bidaltzea edo Opari Tiketaren eskaera kudeatzea. Hirugarrenen datu pertsonalak ematen badituzu, bermatzen duzu haiei jakinarazi izana zein diren xedeak eta beren datu pertsonalak nola tratatu behar ditugun.

8. ALDAKETAK PRIBATUTASUN-POLITIKAN

Baliteke Pribatutasun- politika honetako informazioa aldatzea egoki deritzogunean. Aldatzekotan, plataformaren bitartez hainbat bidetatik jakinaraziko dizugu (adibidez, banner, pop-up edo *push* jakinarazpen baten bidez), edo zure helbide elektronikoaren bidez komunikatuko dizugu, zure pribatutasunarentzat esanguratsua bada aldaketa; horrela, aldaketak berrikusi ahal izango dituzu, baloratu, eta beharrezkoa bada zerbitzu edo funtzionaltasunen bati uko egin. Edonola ere, noizean behin Pribatutasun- politika berrikustea iradokitzen dizugu, aldaketa txikiren bat balego edo hobekuntza interaktiboren bat gehitzen badugu, aprobetxatuz beti izango duzula informazio-gune iraunkortzat gure webgunea eta gure aplikazioa.

9. COOKIEN INGURUKO INFORMAZIOA

Cookieak eta antzeko dispositiboak erabiltzen ditugu plataforman errazago nabiga dezazun, Gurekiko nola jarduten duzun jakiteko eta, zenbait kasutan, zure nabigazio-ohituren arabera publizitatea erakusteko. Mesedez, irakurri gure Cookie-politika, erabiltzen ditugun cookiez eta antzeko dispositiboek eta beren xedeaz gehiago jakiteko, eta bestelako informazio interesgarria jasotzeko.